

...eta

Kitto!

834 zkia.
2013-II-1

Aratosteak NATURA ESNATZEN



R.P.S. Nº 149/10 L.L.C.



1.000
modelo
baino gehiago

57€
graduaturiko
kristalak barne



mō
zuretzat sortuak

Eskaintza hau baliagarria izango da 2013ko Abendura arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Iribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua



ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkarte@etakitto.com

ASTEAN ESANAK

"Emakumezko soldaduak borrokan aritzeko indarrean zen debekua amaitzeko agindua eman dute AEB-n. Emakume horien artean, hirutik batek jasaten du sexu jazarpen edo erasoren bat. Egilea? Ondoko militar kidea"
(GARI UDABE, KAZETARIA)

"Gure hezurrekin batera, erabilitako gailu eta autoak aurkitzen dituztenean, zerk nori agintzen zion galdetuko dute gure ondorengoek. Hori zeozer aurkitzen badute: hilotz guztiak erraustuta, idatzitakoa besterik ez da izango"
(EMILIANO AGIRRE, PALEONTOLOGOA)

"Krisia dela-eta, asko ugaldtu da hildako zaldien kopurua: 2009an ofizialki 30.000 zaldi hil bazituzten Espainian, iaiz berriz 80.000ra heldu zen kopurua, gehienak Andaluzian, mantentzea ezinezkoa egiten zitzaielako"
(PEDRO ESPINOSA, IDAZLEA)

"Euskal Herriko eta Espainiako espazio publikoan ez dago komunikabiderik ideien trukatzeko, eztabaida demokratikoa... ahalbidetzen duenik. Zaila da kazetaritza ona egitea kartzelan edo bizkartzainarekin dauden kazetariekin"
(MATHIEU CRETENAND, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

JAKIN.- Ohi, ohitura izan. "Arraten badaki maitezian edurra egiten".

JAKINBIHAR.- Jakinmina. "Gazterik, gauza guztien jakin biharra atera eban". Jakinekoa, mugatua, zehatza. "Gauza jakiña zan zerek urtengo eban nahaste hartatik". "Ez giñan geratu egun jakin baterako".

eskutitzak

GAZTE ZUKGUA

Kaixo Frutak!!

Hilabete batzuk daramatzagu kolore, zapore eta usain desberdinak frutak biltzen. Batzuk gorriak, besteak moreak, berdeak, arrosak eta laranja ere elkartu gara; denon artean eztabaidatu eta iritzi desberdinak eta proposamenak elkartrukatu ditugu. Norbanakotik hasita, kolektibora iristeko.

Bidea luzea izan da, baina helburu dugun GAZTE Antolakunde berria gero eta gertuago dago; horre-

gatik, azkenengo txanpa honetan, ilusioz, irribarrez eta umoretsu parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, horrela guztiok batera Eibarko mazedonia osatuko dugu-eta!

Hurrengo zita otsailaren 2an izango da GAZTE-txean, 16.30etan, eta bertan emendakinen bozketa egingo dugu. Animatu zaitezte, Bihotza, Burua, Eskuak, Sentitu, Pentsatu, Ekin!

EIBARKO TALDE MOTORRA

MILA ESKER BERRIAREN 10. URTEURRENAREN BEZPERAN

Kaixo laguna:

Herriz herriko zeregin gehienak bukatu ditugu, eta eskerrak eman nahi dizkizugu horiek pentsatzen, antolatzen, ezagutarazten, eta batez ere, gauzatzen lagundu diguzun horri. Leku batzuetan gauza asko egin dugu, beste batzuetan ez hainbeste. Asmatu dugu hainbatetan, ez denetan.

Baina, poliki-poliki egitasmo honek bere baitan duen mezua jende askorengana iristea lortu dugulakoan gaude. Eta hori, neurri handian, zuei esker izan da.

Hilabete batzuetan albora utziko dugu pixka batean herriz herriko lanketa. Baina, ondo jakina duzue, egitasmo honek segida izango du, euskararentzako eta euskal kulturarentzako hain beharrez-

koa dela berretsi diguzuen proiektu honek indartsu hel diezaion etorkizunari. Eta ez dira hitz hutsak: diru laguntzak beharko ditugu aurrerantzean ere, baina batez ere gure komunitatea erne egotea behar dugu, proiektuan era batera edo bestera parte hartzea, ideiak ematea, iritziak, kritikak... nahi dena; bideragarri egiten, eta euskaldunok behar dugun komunikazio proiektu sendoa egiten laguntzea.

Hori berori nabarmenduko dugu apiriletik ekainera ospatuko dugun **Berriaren 10.** urteurrenean. Hogeita hamar ekitaldi inguru antolatzen ari gara; emango dizuegu informazio zehatza laster, eta gonbidatuko parte hartzera. Bitartean ondo izan, eta mila esker berri ere.

BERRIA



Euskara Elkarte

ARGITARAATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartean E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnak:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Felipe Loyola

BANAKETA-ARDUAADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kito!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Sagardotegirako plan biribilla

Otsaillaren 9tik apirilaren hasierara arte txotx denboraldiaz gozatzeko aukera barrixa eskinduko dabe Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo sagardotegi banak, Aizpurua autobusak eta Manuel Juanito taberniak. Asteburuero sagardotegira juateko aukeria emongo dabe, eguardiz edo gabaz, jarraixan emondako ordutegi eta planari jarraituta: zapatu eguardixan, 12.30xetan urten eta 21.30xetan Eibarren bueltan izateko (Hernaniko Iparragirre sagardotegixa ezagutu -30 miñutuko bisita gidatua, hiru sagardo desbardiñen dastaketia eta bazkarixa-eta arratsaldia Hernanin, 20.00ak arte-); zapatu gabian, 19.10ian urten eta goizaldeko 03.30xetan bueltan izateko (Astigarragako Ipintza sagardotegixa ezagutu -Hagin Rezola bertsolarixaren ardurapian eta, menua, kafia barne-); eta domeka eguardixan, 12.55ian urten eta 19.45etan bueltan izateko (Usurbilgo Saizar sagardotegixa ezagutu - betiko menuarekin batera, kafia Usurbillen hartzeko tartia-). Hiru kasuetan autobusa Manuel Juanito tabernatik urtengo da eta menua eta garraiua preziua 46 eurokoa da (garraia bakarrik nahi bada, 16 euro). Izena Juanito tabernan emon leike, beti be eguaztenetako 22.00ak baiño lehen, zerrendak orduan erretiratuko dittelako.

Kaleratzeak Stop-en moziñua onartu dabe

Udalbatzak astelehenian aho batez onartu eban Kaleratzeak Stop Desahucios Debabarrenak aurkeztutako moziñua. Gaiñera, alkatiak otsaillian Eibarren bulegua daken finantza-erakundiekin biltzeko asmua agertu dau, hipotekia pagatzeko modurik ez dakelako etxia galtzeko arriskuan egon leikiazan famelixen barrri jaso eta euren alde jarduteko. Moziñuan eskatzen dittuenen artian, "Españiako gobernari eta Gorteei hipoteken araua lehenbailehen aldatzia, legia kanbixau arte moratoria onartzia,



banketxieri kaleratziak saihesteko plana martxan ipintzia eta kalian geratu diraneri informaziñua emon eta laguntzeko konpromisua hartzia" dagoz. Horrekin batera, udalak gaur egunian erabiltzen ez dittuan egoitzak erabilli ahal izateko eta gizarte larrialdixetarako baliabidiak aktibatzia be eskatu dabe, bestiak beste.

San Blas opillak bedeinkatzeko mezak

Domeka San Blas eguna da eta, urtero legez, herriko elizetan opillak bedeinkatzeko mezak ospatuko dittue: Karmengo Amaren elizan meza guztietan bedeinkatuko dittue; Amañakuan 11.00etan; San Pio X.a eta San Andresen 12.00xetan; eta San Agustiñen 13.00etan.



Kontrataziñuetarako hizkuntza irizpide bateratua

Gipuzkoako 39 erakundek, Eibarko udala tartian, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak kontrataziñuetarako hizkuntza irizpide bateratua aplikatzia adostu dabe aste honetan. Erabagixak obra kontratuari, herri-lanen emakideri, zerbitzu kontratuari, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuari eta hornidura kontratuari eragingo de-tse. Udalen kontrataziño politikan tresna inportantia izango dira irizpideak. Izan be, oiñ arte udal bakotxak hizkuntza irizpideak nahi izan daben moduan erabilli dittu, baiña aurrerantzian, modu bateratuan adostutako protokolen bidez, erakundien biharra eraginkorragua izango dala pentsatzen dabe.

MAITANECASTILLOTAOLA VI. urteurrena

"Zurekin beti oroitzen gara eta zure irribarreak gure bihotzetan jarraitzen du"

ZURE KUADRILLA

BERE ALDEKO MEZA egingo da otsaillaren 2an, zapatuan, San Andres parrokiari, arratsaldeko 19.00etan hasita.





Basarritarrak eta Sostoa santaeskian

Martitzena Santa Ageda eguna da eta, ohi-tturiari jarraituta, santaeskian urtengo dabe herriko hainbat taldek. Iaz hasitako bi-diari jarraituta, Kiñarra eta Arrate auzueta-ko basarritarrak gaztiak bixar egun osuan, goiz

eta arratsaldez ibilliko dira baserriko basa-ri koplak kantatzen, Baltzola anaixak la-gunduta. Eta Sostoa abesbatzakuak, barriz, betiko moduan bezperan, hillaren 4an egin-go dabe kalejiria, 19.00etan hasitta.

Debabarrena Fitur Azokan

Domekara arte Madrillen martxan egongo dan Fitur Naziñoarteko Turismo Azokaren 33. edi-ziñuan Debabarrenak eta Euskal Kostaldeko Geoparkiak euren eskintzaren barri emoteko tartia dake, Euskadik azokan dakan stand-aren barruan. Gure inguruko turismua dina-mizau eta sustatzeko asmuarekin, Cristina Itu-rriagagoitia Debegesako turismo arduraduna, Jasone Galdona Debako Turismo Bulegoko arduraduna eta Leire Barriuso Euskal Kostal-deko Geoparkeko gerentia azokara gertura-tuko dira egunotan, "beste erakundiekin ha-rremanak sendotu eta sektoreko profesiona-len artian kontakto barrirak lortzeko".



autuan

MUSIKAGERRILLA ON TOUR

Bixar Musikagerrilla On Tour har-tuko dau gaztetxiak: 18.30xetan mahaingurua eta presentaziñua egingo dittue eta 19.30xetan ka-raoke-poteo-gerrillerua, gazte-txerañño. Jarraixan kontzertuak hasiko dira Azken Aukera, Liska-rra eta Musikaberbena taldiak. Sarrerak 3 euro balixo dau.

MERKADILLUA ERREBALERA

Hille bi barru eguaztenetako merkadillua tokiz kanbixauko dabe eta Eibarko Txikito eta Un-tzagako salmenta postuak Erre-balen ipiñiko dittue, Udalak sal-tzailliekin adostasuna lortu eta gero. Holan saltzailliak erosuago egongo dirala pentsatzen dabe eta, bide batez, Errebal inguru-ari bizittasun haundixagua emon-go detse.

IBILGAILLUEN ZERGA

2013. urteko Trakziño Mekaniko-duneko Ibilgailuen gaiñeko zer-ga borondatez pagatzeko epia martxuaren 8xan amaittuko da. Helbideratutako erreziubak epia amaizten dan egunian emondako kontu korrontian kargauko dittue.



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27



Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 82 15 39** · www.funeuskadi.com



El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·



ISO 9001
SERVICIOS VERIFICADOS
Certificados
Fº. Tercerizados y Contratados

asteko
105
datua

keja eta proposamen hartu eta tramitatzen ditue udalian hillian batzbestea, izazko datuen arabera. 2012xan kalia zikintziagaittik 41 isun ipiñi zittuen, hórretatik 32 kalia txiza egittiagaittik, 7 pintadengaittik eta 2 animalaxeri jatekua emon eta kalia kartoia botatziagaittik.



Asier Cuevas ondo lagunduta izan zan ekitaldixan. Behian, sagardo dastaketiaren une bat. LEIRE ITURBE


Maitasunaren Hamabostaldixa Zona 10-en



San Balentin eguna gerturatzen doia eta, horren harira, Zona 10 alkartekuak Maitasunaren Hamabostaldixa ipiñi dabe martxan: otsaillaren 14ra arte alkarteko denda zein tabernetan zeozer konsumitzen dan bakotxian hainbat produkturekin osatutako otra biren zozketan parte hartuko dabe bezeruak. Zozketia otsaillaren 14an, 20.30xetan egingo dabe. Horrekin batera, kanpaiñak dirauen bittartian bihotz itxurako bereizgarrixekin identifikauta egongo diran eskintzak egingo ditue dendetan eta tabernetan pintxo berezixak preparauko ditue.

Alex Aranzabalek liburu argitaratu dau

Alex Aranzabal EITBko Garapen zuzendarixak "Telebista publikoa: eraldaketa, finantziazioa eta demokrazia" liburu aurkeztu barri dau. Liburuak EHU-ren Udako Ikastaruetan telebista publikuaren gaiñian egindako hausnarketak biltzen ditte, Aranzabalek kudeatuta. Liburuak "Telebistaren transformazioa eta finantziazioa" (2011) eta "Telebista publikoa eta demokrazia" (2012) txosten bixak jasotzen ditte. Azken urte bixetan EITBk udako ikastaro bi antolatu ditte Euskal Herriko Unibertsitatearekin alkarlanian eta Aranzabalek zuzendutako lanak, izen haundiko hizlarixen partehartzia tartian dala, nazioñarteko krisixaren testuinguruan telebistak arlo publikuan dakan zentzuaz eta finantziaziño ereduaz gogoeta egitteko bidia zabaltzen dau.



Txotx!

Aurreko barixakuan zabaldu eben Iruki sagardotegixan txotxa, horretarako hainbat ekitaldi antolatuta: illuntzixan herri-kirol erakustaldixa eta kalejiria egin ziran eta afaldu baiño lehen Egoitz Zapirainekin sagardo-dastaketa be egiñ eben hainbatek. Txotxa, barriz, Asier Cuevas hamaika marka lortu dittuan korrikalari eibartarrak zabaldu eban. Ondoren, bapo afaldu eben han batutako guztiak.



M^a Luisa Ormaetxea Arrizabalaga-ren



heriotzaren 3. URTEURRENA

GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO.
MAITE ZAITUGU.

Zure Familia

Eibar
2010eko otsailak 1





JUAN LUIS IBARLUZEA (ingeniaría)

“Liburuak ez dit denbora kendu; bizipoza eman dit hor jardutea”

Aurreko asteko eguaztenean “Newtonen sagarretik esku-pilota kuantikora” liburua aurkeztu zuen Armeria Eskolan Juan Luis Ibarluzea eibartarrak. “Eibarko Koadernuak” sailaren barruan Ego-Ibarrak kaleratu duen liburuaren egilea “berrikuntza eta zientzia zabaltzen” ahalegindu da: bereak dira marrazkiak, Nerea Isasirena azala eta Asier Etxaburuak eta Amaia Rodriguezek egin dute euskararako itzulpena.

- Zer transmititu nahi izan duzu liburuan?

Hainbat ezagupen hor goi mailan diharduen jendearengandik hartu eta gizarteratu nahi izan dut: Einstein eta Hawking moduko jendea gerturatu eta gureago egin. Liburua laburra da eta kuriositate pixka bat duenarentzat atsegina; hori bai, lasto gutxiarekin, ingeniariak ikasi dugunok horretarako erraztasun gutxi daukagu-eta.

- Hiru esparrutan zentratu zara batez ere, ezta?

Industria berrikuntza, ikerkuntza eta zientzia modernoa izan dira ildo nagusiak, ahaztu barik gero bere garapena duten materia, erlatibitate eta fisika kuantikoa.

- Hasierarako zu zeu izan zara abiapuntu...

Nire esperientziatik abiatu naiz, iragana kontatuz. Eibartik Ameriketara, mundura, zelan joan nintzen kontatzen dut: errazenetik korapilatsuenera jotzeko pausu hori. AEB-n, esaterako, badakite profesionalen materia grisa erabiltzen eta jubilatutako esperientziak baliatzen dira beste bi-hiru urtetan kudeaketa lanetarako; hemen, aldiz, askotan jubilatua etxera joaten da eta ez da bere jakintza aprobetxatzen.

- Bigarren zatian Tekniker izan duzu lagun...

Lagun eta aholkulari, beti izan baitut euren laguntza. Hor iragandik oraingora eta gerora egin dut jauzia.

- Eta hirugarrenean etorkizunetan zentratu zara gehiago...

Esparru horretan beste mundu batekin egiten dugu topo. Hor goi mailan dihardugunez eta ni ikasle gisa jarduten dut.

- Zelan saiatu zara nahi izan duzun gertutasun hori lortzen?

Matematiketatik ez dauka ezer liburuak, formula bakarra izango da liburu guztian. Kontzeptuak dira guztiak, adibideekin jantziak. Horretarako, gure kirolaz baliatu naiz eta modu kuantikora pasatu. Argi nuen edozeinek ulertzeko moduko liburuak egin behar nuela.

- Liburuaren izenburuak ere hortik jotzen du, ezta?

“Berrikuntza eta zientzia dibulgatzen” izenarekin kaleratzeko asmoa nuen, baina onartu behar izan dut “Newtonen sagarretik esku-pilota kuantikora” izena erakargarriagoa dela jendearentzat. Hasieran pentsatutako izena azpigitu bihurtu dugu.

- Zenbat denbora kendu duzu liburua egiteak?

Kendu ezer ere ez; bizipoza eman dit liburuak egiteak. Nik ez

dizkiot urteak eskaini; liburuak urteak eman dizkit neri. Elaboreazioan urte eta erdi edo eman gogor nituen. Gero, argitaratzeko ate-joka ibili behar izateak beste horrenbeste denbora eskatu zidan seguruenik.

- Krisiak inguratzen gaituen sa-soi honetan, nondik ikusten duzu irteera?

Nik baino gehiago dakitenak izango dira! Agintarien ahotan behin baino gehiagotan entzuten ditugunak brindisetan gertatzen direlakoan nago, askotan ez dutela benetan horrela sentitzen nabaritzen zaie-eta. Baina ez dago sekreturik: Ikerkuntza + Garapena + Berrikuntza. Hori da funtsa. Garrantzizkoena berrikuntzetan ikusten dut nik: puntan egoteko egin behar dira, ez krisitik ateratzeko. Akzioak erosi behar dira. Tekniker moduko zentroa izateak zein garrantzia duen ez gara askotan jabetzen.

- Orain arte egindako zein aurkikuntzak du garrantzi gehien?

Fisika kuantikoa punta-puntakoa dela onartuta, hor Ginebrako azeleragailua dugu. Materialen hasiera ez da lortu oraindik, baina horko bidea garrantzitsua da oso. Erdi-eroaleak edo semikonduktoreak ditugu, laserrak ere aurrerapen ikaragarriak ekarri dituzte, GPS-a berak Einstei-

nen erlatibitatearekin jartzen gaitu harremanetan...

- Hutsunea dago, akaso, dibulgazio zereginetan?

Donostia International Physics Center zuzentzen duen Pedro Miguel Etxenik Nobel sariak eta zientzialari handiak ekarri izan ditu Kursaalera eta, txundituta lagatzen bazaituzte ere, oso goian daude diotena ulertzeko. Hori hiru-lau maila jaisten ahalegintzen badira ere.

- Zu gustora geratu zinen Armeria Eskolan egindako liburu aurkezpenetan?

Ekitaldia ondo joan zen eta eskerrak ematekoa da. Hala ere, bada arlo bat kezka sortu zidana: ileurdin askotxo eta gazte gutxi ikusi nituela. Aurretik ere hiru hitzaldi eman nituen iaz gaiaren inguruan -Armeria Eskolan bertan, Ingeniaritza Eskolan eta Elgoibarko IMHn- eta han izan ziren gazteak faltan bota nituen oraingoan. Deialdian akaso akatsa egingo genuen.

- Bestelako proiekturik esku artean? Libururik?

Badut ikertzen eta irakurtzen jarraitzeko asmorik, baita bide honetatik jotzeko ere. Aurretik ere baditut idatzitakoak, baina beste bide bat hartu dutenak. Zientzia, gainera, inoiz ez da gertatzen eta eskaintzen du tartea.

Astelehenian, urtero legez, Nafarroan Zubietatik Iturunerako bidia egiñ eben joaldunak eta hurrengo egunian, barriz, iturendarrak jua ziran Zubietara bisitan. Joaldunak, lerro bi osatuta, herri bixen arteko 3 kilometruak mugimendu geldo eta erritmikuarekin, zintzarrixen doiñuekin bat egitten daben pausuari jarraituta betetzen dittue. Hala egiñ izan dabe aspaldittik, urtero errepikatzen dan ohitura bihurtu arte: urtarrilleko azken astelehenian ekiten detse askorendako Aratostien aurrekarixa dan jaixari. Beharbada kalejiran doiazan joaldunen jantzixak berezixak diralako: abarkak, ardi-narrua bizkar gaiñian, kolore biziko zapixak lepuan, koloretako zinttekin apaindutako txapel konikua, zaldixen uliekin egindako isopua eskuan eta, zelan ez, zintzarri haundi bi gerrixari lotuta. Baiña errituak naturaren zikluekin loturia dakala be pentsatzen dabe askok: zintzarrixak egitten daben zaratiak espiritu txarrak uxatu eta inguruko lurretan lo daguazen energixak esnatzen ei dittue, holan, negua azken txanpan daguala, lurra laster aillegauko dan udaberrirako preparauta.



Aurten Eibarko koko-dantzak Elgoibarrera be zabalduko dira. FELIPE LOYOLA

KOKO-DANTZAK, Eguen Zurixari ATIA ZABALTZEN

Nafarroan joaldunak egindako moduan, gurian koko-dantzarixak eta koko-marruen konparsak iragartzen deskuez ate-joka dittugun Aratostiak. Eta bixar bertan izango dira koko-dantzari eta koko-marruak gurian bisitan, goizeian basarrixetan eta illuntzixan herriko kalietan. Aurten koko-dantzak Mandiola eta Gorosta aldian ibilliko dira, goiz partian Azittaiñ eta Matsarixako industrialdian daguazen basarrixetan (Eskaregi, Agarre, Azaldegi, Nagiorbe, Azpiri, Ar-

laban, Asolagaineko...), Mandiolara aillegau arte. Hortik gorra jarraituko dabe, Santa Kurutz aldera eta inguruan daguazen Iturrao, Gisasola eta abarretara. Kezka dantza taldekuak azaldu deskueenez, "Arraterako errepidetik juanda daguazen basarrixetara be juateko asmua daukagu: Milaflores aldekuak, Iturburu gaiñeko Amezabalegi aldekuak, Pagae-gi ingurukuak, Ixua, Usartza eta Akondia, Pagola, Altzaga eta Berretxinak".

Guztira 30 bat basarri izango

dira eta, danetara illundu baiño lehen aillegatzeko, talde bittan antolatuko dira koko-dantzari eta koko-marruak: "Talde batek ixa ibilbide osua oiñez egingo dau. Talde bixen artian 50 bat lagun ibilliko dira basarriko basarri koko-dantzan eta koko-eskian".

Illuntzian, urteroko martxari jarraituta, Eibarko kalietan segiduko dabe jaixarekin. Arratsaldeko 19.00etan anbulatorixo pareko parkian alkartuko dira koko-dantzari eta koko-marru guztiak: "Han Mauxitxa txa-




ROBERTO DELGADO ISASI^{ren}

1. urteurrena (2012-II-1)

Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

Haren aldeko MEZA ospatuko da otsailaren 2an (zapatua), 19.00etan, SAN ANDRES parrokan.



rangakuak zaiñ eukiko dittugu eta, basarrixetan ibillitakueri beste hainbat koko-marru, ma-susta eta koko-moko batuko jakuez. Izan be, illuntzeko deialdixa irekixa da, nahi da-ben jende guztiak izango dau parte hartzeko aukeria. Kezka-tik nahi daberen guztiak koko-jantzi eta Aratostietaz eta fes-taz gozatzeraz gonbidatu nahi dittugu”.

Herri-barruko koko-dantzak 19.00etan hasi eta 21.00ak al-dera amaituko dira eta Toribio Etxebarria, Zuloagarren, Untzaga eta Fermin Calbeton ka-lietan jardungo dabe dantzari eta konparsak. Aurten, gaiñera, azken martitzen bixetan entse-gu irekixak egin dittue Kezka-kuak, koko-dantzak ikastera animau diranekin eta bestela be Kezkako dantzariak koko-dantzak preparatzen emon dit-tue azken astiak. Euren berbetan, "aurreko batian Toribio Etxeberriaren aipu batekin akordau giñan: 'Aratostietara-ko, makilla-dantzia ikasten da-biz gazte mordo bat'. Politta begittandu jakun 80 urte baiño gehixago pasau eta gero Eiba-

ren atzera be gazte mordo bat Aratostietarako makilla-dan-ztia ikasten dabillega”.

Koko-dantzak Elgoibarrera

Eibarren ez eze, aurten El-goibarren be eukiko dabe ko-ko-dantzekin gozatzeko auke-rarik. Izan be, Haritz dantzari taldiaren 40. urteurrena dala eta, koko-dantzak Elgoibarko kalietan eskinduko dittue da-torren asteburuan, otsaillaren 9xan 19.00etatik aurrera: "Kez-kako taldetxo batek hartuko dau parte bertan, baiña batez be Haritz dantzari taldeko dantzariak gorpuztuko dittue koko-dantzari eta koko-marru gehixenak". Eibarko moduan, Elgoibarren be Mauxitza txar-rangakuak ipiñiko detse musi-kia koko-dantzeri. Otsaillaren 9an, larunbatean, arratsaldeko 19.00etatik aurrera izango dira koko-dantzak Elgoibarren.

Eguen Zurixan umiak nabarmen

Aratostietako lehelengo eguna, baiña, datorren astian ospatuko dogun Eguen Zuri eguna (otsaillak 7) izango da.



Eguen Zurixan eskoletako taldeen kalejirak egingo dira bazkalostian. LEIRE ITURBE

Eskoletako taldeen kalejirak bazkalostian, 15.30xak aldera hasiko dira eta, hórrek amait-tuta, 17.00etan Untzagan dan-tzaldixa hasiko da Lisker tal-diaren eskutik. Ordu berian hasiko da Urkizutik Untzagara bittarteko kalejiria, Jainaga eta Narbaizarekin. Eta 19.00ak arte Untzagan taillarrak egongo dira martxan, Astixarekin (animalixen kareta eta makilla-je eta osagarriak egittekuak).

Kaldereruak Barixaku Erregularrian

Barixaku Erregula-rrak, barriz, Aratos-tietako asteburu lu-ziari ekingo detsa illuntzixan: 20.00-etan Urkizun hasi

eta Untzagaraiño kalejiran juango dira Kaldereruak. Kale-jiran parte hartzen Kezka Dan-tza Taldia, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisaso-la Musika Eskolako trikitilari-xak, Lagun Taldea, Untzagako jubilau etxekuen abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa eskolakuak izango dira. Kalejiria amaittuta, Untzagan Kaldereruak abestixak eta dan-tzak eskinduko dittue eta Ara-tostietako pregoia be orduan botako dabe. Eta 23.00etatik aurrera herriko hainbat DJ-k emanaldixa eskinduko dabe. Hortik aurrera eta martitzenian sardiñaren entierro txikixa egiñ arte segiduko dau jaixak, jaki-ña, baiña antolatutako progra-maziño zihetzaren barri hu-rrengo asteko aldizkarixan emongo detsuegu.



Urtero lez, kaldereruak izango dira Barixaku Erregularreko protagonista. LEIRE ITURBE

CARMEN URBERUAGA URIONAGUENA

(TXOMIN IRIONDOREN ALARGUNA)

2013ko urtarrilaren 25ean hil zen, 76 urterekin



FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak amaitu eta jarraian Nueva Yorken urtebete eman du beharrean 23 urteko Marta Quintín-ek. Urte berriarekin batera Radio Eibar-Cadena Ser irratiara ailegatu da. Bien bitartean, Unibertsitateak ikasle onenei ematen dizkien saria eskuratu du eta bere lehen eleberria argitaratu diote.

- Nola ailegatu zara zure jaioterria den Zaragozatik Eibarreraino, bidean Nueva Yorketik pasatuta?

La Caixaren beka bati esker 2012a Nueva Yorken eman nuen, EFE agentziaren ordezkari izan nuen. Berez urte birako beka zen eta, Nueva Yorkera joan baino lehen, aurreko urtean Iruñeko ordezkari izan jardun nuen, karrera amaitzen nuen bitartean. Bigarren urtean nora joan aukeratu nezakeen eta Nueva York hautatu nuen, kazetari batentzat hiriak dauzkan aukerak erakarritak. Beka iazko abenduan amaitu zitzaidan eta bueltan etorri nintzen. Eta unibertsitateak lizentziatu berrientzat duen programaren bitartez, Cadena Ser irratiarako beste beka bat lortu eta horrela etorri naiz Eibarko emisoraraino.

- Nolako izan da Nueva Yorkeko esperientzia?

Oso ona. Hango bizimodura moldatzea zaila izango zela pentsa daiteke, denak oso indibidualistak diren itxura hartzen diegu, baina nik Nueva Yorki buruz berba onak baino ez dauzkat. Bestalde, ingelesa jakin arren gazteleraz bizitzeko arazorik ez dago, hiri elebiduna da. Hori bai, hemen bizitza osoan pasatzen ez zaizkizunik han astebetean denak batera pasatzen zaizkizu, peli-

kuletan ikusten duguna motz geratzen da errealitatearekin alderatuz gero!

- Lehen eleberria ere han argitaratu zenuen, ezta?

"Dime una palabra" 18 urterekin idatzi nuen, baina gordeta nuen. Antzerkia gustatzen zaidanez, Nueva Yorken tailer batean izena eman nuen eta, hango irakasleak bultzada emanda, liburua argitaratu zidaten. Eleberrian bere nortasuna oso argi ez duen mutil baten bidaia da ardatza: bidaia horretan Ulises, Hamlet eta beste pertsonaia oso ezagun batzuekin topo egin eta gai unibertsalez eurekin berba egiten doa.

- Nolako izan da Nueva Yorketik Eibarrerako aldaketa?

Ba jendeak pentsatzen duena baino naturalagoa. Nire lanbidean beharra izatearekin pozak zorutzen nago eta emisoran askatasun eta tarte handia eman didate, sormena lantzeko aukera daukat. Besteak beste astean behin ipuina idazten dut eta, bizitzan gehien gustatzen zaidana idaztea denez, zer gehiago eska dezaket?

- Zein albiste emango zenuke gustora?

Enplegua sortzen hasi dela, batez ere gazteentzat lanpostuak sortuta.



Marta Quintín
(KAZETARIA)

"Nueva Yorketik Eibarrerako saltoa naturala izan da"

aldatze

www.aldatze.org

“Eskola Jasangarria” bandera jaso du Mogel Isasi BHI-k

Aurreko asteko egunean jaso zuen **Mogel Isasi BHI ikastetxeak** Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria duela aditzera ematen duen bandera. Miguel de los Toyos alkatearen eskutik jasotako bereizgarria “*eskola jasangarria eta ingurumenarekin konprometitutakoa*” izateagatik eskuratu du ikastetxeak eta ekitaldian, alkatearekin batera, Juan Angel Balbás Debegesako zuzendari-gerenteak eta Jon Garaizabal ikastetxeko zuzendariak hartu zuten parte.

Eusko Jaurlaritzak ematen duen bereizgarria, hau da, Eskola Jasangarriaren ziurtagiria “*Eskolako Agenda 21 egitasmoa modu bikainean garatzeagatik*” jaso

du Mogel Isasi ikastetxeak. Proiektuaren koordinazioaz eta bestelakoez arduratzen den Debegesatik esandakoari jarraituta, “Mogel Isasi ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek azken 10 urteetan dihardute buru-belarri Eskolako Agenda 21 egitasmoa lantzen, ikasleen artean jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzen, Ingurugela eta Debegesa garapen agentziaren laguntzarekin. Bestek beste, urte hauetan guztietan honako gai hauek landu dituzte: hondakinak, ura, Deba ibaia, energia, klima aldaketa, kontsumo iraunkorra eta mugikortasuna”.



Urte hauetan egindako beharra saritzeko ekitaldia izan zen, beraz, aurreko astean egindakoa.

Injeniaritza Eskolari saria

Energia Berriztagarrien Europako Elkarteak saria eman dio Eibarko Industria Injeniaritza Tekniko Unibertsitate Eskolari, “*energia berriztagarrien arloan egiten duen behararengatik oro har eta, modu zehatzagoan, ikastetxean eskaintzen duten Energia Berriztagarrien Injeniaritza Graduarengatik*”. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitateak gure herrian duen ikastetxea estatu mailan horrelako gradua eskaintzen lehena izan da eta aurretik ere saritu dute ekimena: energia berriztagarrien erabilera egokiak saritzen dituen Solar 2012 sarietako bat, heziketa eta formakuntzarako ekimenei eskainitako atalekoa ere Industria Injeniaritza Tekniko Unibertsitate Eskolak eraman zuen iaz, hain zuzen ere 2011-2012 ikasturtean Energia Berriztagarrien inguruko gradua eskaintzen hasteagatik. Saria jasotzera joan zen Angel Franco eskolako zuzendariaren berbetan, “*saria ikastetxeko irakasleentzat graduaren garapenean gehiago inplikatzeko piz*



Angel Franco Evitiko zuzendaria saria jasotzen.

garria” da eta “*are gehiago motibatuko ditu etorkizunean energia eredu jasangarriagoaren alde beharrez jardungo duten injenieriariak prestatzeko orduan*”.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeki zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33 **ZULOAGATARREN, 7**

merkalitatea

+ OSASUN GODA

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

ARRETA-ZERBITZU
INTEGRALA

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura.

Mutua, konpainia eta
kolektibo handiekin
itundutako zentroa...



TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Tel: 943 20 18 51

m **bista eder**
clínica dental - hortz klinika

Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika

Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. esk. 943 70 00 90



RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

hortz-klinika

B. IZAGIRRE

clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4.

Tel. 943 70 23 85



invisalign

Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

Mª Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma

Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR)

San Ignacio 2 (ELGOIBAR)

Tfnoa. 943 20 34 46

Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea

943 206 044

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuarta
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica
RECALDE**
Oftalmologi Klinikia

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA
AIZPUN**
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

**Maider
Lopez
Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



AMETS
**PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA**

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buldogoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ez. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea

Tel. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

**MADINA
RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:
deitu 943-206776 telefono zenbakira

ARATOSTEAK
2013

Taberna dotoreena aukeratzeko lehiaketa

Udalak Aratosteetan hobeto en apaindutako taberna aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Jaietarako taberna apaintzen duen edonork har dezake parte lehiaketan, otsailaren 7a baino lehen Pegoran edo 010 telefono zenbakian izena emanda. Izena ematerakoan dekoraziorako aukeratzeko gaia zein den adierazi behar da. Lokalak otsailaren 8an arratsaldeko 18.00etarako prest egon behar dira, orduan hasiko baita epaimahaiko kideen beharra. Epaia, berriz, hurrengo egunean, barixaku arratsaldean emango dute ezagutzera. Saria, Eibarko Udalaren garaikurra izango da.



10 artisten "Bide Zabalak"

Aurreko barixakuan zabaldu zuten otsailaren 24ra arte ikusgai egongo den "Bide Zabalak" izenburuko erakusketa Portalean. Erakusketa aretoa ohiko ordutegian zabalduko dute, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Erakusketan hamar artistaren lanaren bidez baliabide berrien erabilpenaren aniztasuna agerian laga nahi da eta horretarako Silvia Abella, Patxi Araujo, Maialen Arozena, Xabier Barrios, Izaskun Etxebarria, Xabier Idoate, Mariana Martín, Silvia Ruiz, Jabier Villarreal eta Augusto Zubiaga EHUko Arte Ederren Fakultateko artisten lanak aukeratu dituzte.

Osabide ez da euskaratuko

Osakidetzak ez du euskaratuko Osabide historia klinikoetarako tresna. Ian hori "diru aldetik bideragarria ez delako". Programa euskaratzeko ardura Osakidetzako Informatika eta Informazio Sistemetakoz zerbitzuarena da eta, gaur egun, hizkuntza normalizaziorako "beste lehentasun batzuk" dituztela jakinarazi dute. Beraz, aurrerantzean ere gaztelania hutsean egongo da osasun profesionalek erabiltzaileen osasun arazoak jasotzeko erabiltzen duten sistema, azken hila-beteetan hainbat medikuk lanabes hori euskaratzeko eskatu arren.

EAEko ikasleen (9-14 urte) datuak

LH4ko ikasleen artean, gela barruan, %60 jarduten du euskaraz beti edo gehienetan. DBH2ko ikasleak berriz, %60 beti edo gehienetan gaztelaniaz. Jolaslekuan gaztelania nabarmen gailentzen da bi mailetan: LH4ko ikasleen %59 beti edo gehienetan ari zen gaztelaniaz eta DBH2n %75. Ikasleak irakasleekin mintzatzen direnean, datuak bestelakoak dira: gela barruan, 9-10 urtekoen %74k euskaraz egiten diete irakasleei beti edo gehienetan; 13-14 urtekoen %61ek. Gelatik kanpo datuak behera egiten dute: 9-10 urtekoen %64 eta DBH2koen artean %52.

euskararen txokoa

Interneteko Argia Saria dantzan.com-entzat

Aurreko barixakuan banatu zituzten Argia Sariak 2013 Usurbilgo Atxega Jauregia jatetxean eta horietako bat, Internet atalekoa Eibarrera ekarri dute Dantzan.com-eko Oier Araolazak eta Eire Vilak; atal berean Bertsoa.com-eko Jexux Mari Irazu eta Eneritz Urkola ere saritu zituzten. Argia saria emateko orduan "konpromiso handiko proiektu independente bi, alor horietan erreferentziakoak direla" nabarmendu zuten.

Gainontzeko ataletan honako hauek jaso dute saria: Prentsa Idatzikoa Eibarren jaiotako Edu Lartanguren Berriako kazetariak; Irratikoa Asier Leozek Euskadi Irratian egiten duen Portobello programak; Publizitatekoa Herrira mugimen-



duak hilaren 12ko manifestaziora begira presatutako Denbora film laburrak; Telebistakoa Maddalen Iriartek ETB1en gidatzen duen Azpimarra saioak; eta Merezimenduzkoa 30 urte bete dituen Euskadi Irratiak.

Berba zatarrenaren bila

Eibarko euskaltegi biek (Udal Euskaltegiak eta AEK-k) berba lehiaketa antolatu dute Udalarekin elkarlanean. Iaz Eibar definitzeko berbarik politena aukeratu behar izan zuten parte-hartzaileek eta oraingoan, berriz, euskerazko berbarik zatarrena hautatzeko lehiaketa izango da. Antolatzaileek diotenez, "zatartasuna esanahiarengatik, ahoskerarengatik... izan daiteke. Bakoitzak berari itsusiena iruditzen zaion berba aurkeztuko du eta jendearen botoen bitartez jende gehienaren ustez berbarik desatseginena zein den jakingo dugu". Lehiaketara berbak aurkezteko epea otsailaren 17an amaituko da. Parte hartu nahi duenak berak proposatutako berba euskaltegiatar zuzenean eraman edo



e-mailez (euskaltegiaeibar@telefonica.net / eibar@aek.org) bidaltzeko aukera izango du. Berbarik itsusiena aukeratzeko botoak, berriz, www.eibarko-euskara.com webgunean jasoko dituzte otsailaren 22tik martxoaren 3ra bitartean.

Musika Latindarren II. jaialdia

Gaur 20.30etan hasiko da Coliseoan Musika Latindarren II. Jaialdia (sarrerak 5 eurotan bertan salgai ordubete aurretik). Ana Caballero musika irakasleak zuzenduko duen jaialdian, iaz egindakoaren bidetik, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek, beste hainbat musikariek lagunduta jardungo dute: Iosu Zulaika, Miren Basterretxea eta Ainhoa Larrauri gitarrojoleei ahotsarekin laguntzen Mikel Urkola, Nathali eta Sebastián izango dira, Miren Truebak eta Marta Zubiaurrek biolinarekin jardungo dute, Andoni Mutillak bajoa joko du eta perkusioan, berriz, Jesús Bastida izan-



lazko jaialdiko une bat, hainbat musikari gazteekin. LEIRE ITURBE

go da. Hauei Musika Eskolako Mariatxiaren aktuazioa eta Beatriz García eta Josetxo Gutierrez Berraondoren ahotsak gehitu behar zaizkie.

Peter Pan musikala Elgetako Espaloian

Bihar eskainiko dute Peter Pan ikuskizun musikala Elgetako Espaloia kafe antzokian, emanaldi bitan (16.00etan eta 19.30etan). Ikuskizuneko koreografiak prestatzen Irene Hernando eibartar gazteak jardun du eta, gainera, ikuskizunean bertan taula gainean ikusteko aukera izango da. Ikuskizunaren produkzioaren ardura Pikupe Produzioak hartu du bere gain eta Bergaran egindako aurkezpenean azaldu zutenez, "euskarazko ikuskizuna da Peter Pan



eta herrigintzatik asko dauka. Beraz, primeran egokitzen da Espaloian, Pikuperen eta Bergarako Musika Eskolaren filosofietara. Gainera, Espaloiak musikal bat hartzen duen lehengo aldia izango da". Taula gainean 120 aktore-dantzarik jardungo dute eta orkestrak ere zuzenean joko du. Sarre-rak dagoeneko salgai daude Pikupeko bulegoan, Bergarako Musika Eskolan, Espaloian (leihatilan) eta Espaloiko webgunean, besteak beste.



Musikalaren aurkezpen ekitaldiaren unea.

laburrak

SAN JUAN BOSCO

Zine aretoetako behargin eta behargin-ohiek bazkaria egingo dute bihar zapatua, San Juan Bosco babeslearen eguna ospatzeko. Eskarne jatetxean izango da bazkaria, 13.30etan eta izena emateko azken eguna gaur da (943201910 telefonora deitu).



USTEKABEKOAK ABADIÑORA

Bihar Abadiñon jardungo dute Ustekabe fanfarrekoek, San Blas jaiak direla-eta, bertako Udalak kontratatuta. Txosnaguneko txitxiburduntzia alaitzeko eskainiko duten emanaldia 18.00etan hasi eta 20.00etan amaituko da.

AMAÑAKOEN AFARIA

Amaña herri ikastetxean 1976an ikasten hasi zirenek otsailaren 23an afaria egingo dute: 18.30etan eskolan batu, talde-argazkia egin eta pintxo-potearen ondoren Caserio tabarnan afalduko dute. Joan nahi duenak 50 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxako 3035 020999209103 4997 kontu korrontean hilaren 15a baino lehen. Informazio gehiagorako deitu 626275938 telefonora (David).

MAIALEN LÓPEZ IGLESIAS

3. URTEURRENA (2010-I-30)

MAIALEN, ZURE IRRIBARREA EZ DUGU AHAZTEN.

Zure lehengusu-lehengusina, osaba-izebak eta amamaren partez.





AITOR HERNANDEZ

“Ziklo-krosean etorkizuna aurkitzen saiatuko naiz”

Aitor Hernandez ermutarrak azkenean lortu du Mundialera joatea, batez ere Ermuko Udalak eskaini dion laguntzari esker. Eta, batez ere, errepidean -edo basaz betetako zirkuitoetan- egindako lan bikainari esker: 20 proba irabazteaz gain, Espainiako txapela jantzi du eta baita Kopa lehiaketa irabazi. Domekan Louisvillen izango da, ondo merezitako munduko txapelketan lehiatuz. Atzo joan zen AEB-ra eta martitzenean izango da bueltan, espero dezagun bere onena han eman ondoren.

- Ze itzaropen duzu Louisvillerako?

20. postura gerturatuko banintz, ni pozik. Iaz 50. inguruan sailkatu nintzen eta badago hor hobetzeko tartea. Irteeran asmatzea erabakigarria izan daiteke.

- Ez da ohikoa AEB-n jokatzea. Zirkuitoaren berririk bai?

Interneten ikusi dut bideo bat edo beste: zabala eta laua delakoan nago, eskilara tramo askorekin. Han jokatuta, ezusteak izan daitezke eta, belgiarrak faboritoak izan arren, izango da proba egoki prestatutako estatubatuarren bat.

- Zu zein eremutan moldatzen zara ondoen?

Zirkuitu gogorrak eta lokatzez betetakoak ditut gogokoen, indarra nagusitzen den horietakoak. Modu onena eskaintzen dute taldea apurtzeko eta bakoitzak berea emateko.

- Gaztetan ere, jardun zenuen ziklo-krosean...

Bai; ondo moldatzen nintzen. Baina errepidera jauzia egin nuen eta ez naiz damutzen. Urte onak izan nituen: Tourra, Giroa eta Vuelta korritu nituen, Euskal Herriko Itzuliaren mendi sailkapena irabazi, hirugarrena izan nintzen Euskal Bizikletan...

- Zelan gogoratzen duzu Debabarrenan emandako sasoia?

Juanjo Sebastianekin-eta asko ikasi nuen; gainera, etxean nengoen. Gerorako aberasgarri izan zen.

- Errepidearen oso desberdina da ziklo-krosa, ezta? Doping kasurik ere ez da entzuten...

Ziklo-krosa leherkorragoa da, ordubeteko lana. Errepidean erresistentziak pisu gehiago hartzen du, gogorragoa egiten da.

- Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Datorren urterako animatuta nago. Babesle edo laguntzaileria lortu eta espero dut European hainbat lasterketa egiteko aukera ere izatea, hor asko ikasten baita.

MAIALEN ARAOLAZA

“Jokalarien prestaketan laguntzea poztekoa da”

Maialen Araolaza eibartarrak Hispanoak izenarekin bataiatu-tako Espainiako eskubaloi selekzioko jokalarien prestaketan eta errehabilitazioan ia hilabete osoko lana egin du; eta baita ordainsaria jaso, talde horrek munduko txapelketa irabazi baitzuen domekan Bartzelonan jokaturako partiduan Danimarka egurtu ondoren. Lan hori sasoi baterako baztertu eta Bartzelonan jarraitzen du, fisioterapeuta jardunean. Hori bai, aste-buruan Eibarren izango dugu, koko-dantzetan parte hartzen.

- Lortutako arrakastaren parte sentituko zara, ezta?

Jokalariak dira benetako protagonistak; hori bai, nire esparruari dagokionez, pozik nago egindako lanarekin. Ahalegina egun dut gorputzak eta giharrak puntuan jartzen eta parte hartu dut euren minetako errehabilitazioan.

- Esperientzia berezia izan da? Gogorra?

Urtarrilaren 2an batu ginen eta ia hilabetea egin dugu elkarrekin, Kaxa Magikoan jokatzeko hasi zirenean lagunarteko partiduetatik. Pixka bat luze ere egin zait, intentsioa izan baita.

- Lesio bereziak izaten dituzte eskubaliko jokalariek?

Badira berdintasunak aretoetan jokatzeko diren beste kirolarekin: areto-foballean izan daitezkeenekin, esaterako. Kontrerasoiez-eta baliatzen diren kirolarietan, izterrak eta orkatillak asko sufritzen dute. Sorbaldak ere jasotzen du berea, errepikatzen diren hainbat mugimendu direlako tartean.

- Waterpoloko selekzioarekin jardun zenuenaren antziz?

Sorbaldako minetan bai, baina uretako kirolarietan ez dago hain inportantea. Buia postuan jokatzeko duenak du zama gehien.

- Egunero zenbat ordu eman dituzu lanean?

Dedikazio eksklusiboa izan dut: planifikazioa egin eta dena prestatzen, bendajeak egiten... Gauean ere inoiz ez zen beranduegi. Hori bai: jokalarien siesta sakratua izaten zen.

- Pilates klaseak ematen dituzu egunero, ezta?

Orain bertan irten naiz batetik. Patologia eta min batzuetarako oso egokia da eta gero eta gizon gehiago etortzen dira.

- Zelan gogoratzen duzu Operacion Triunfo-ko esperientzia?

Aberasgarria izan zen. Musikoekin-eta aspalditik nabil lanean, opera munduko bezeroak ditut... Kirolariaren kasuan bezain nabarmena izan ez arren, badute gure beharra.

- Zuen lana errekonoziduta dago?

Orain arte fisioterapia gehiago lotu da errehabilitazioarekin, baina libre dihardugunok gure tokia hartzen goaz.



Espainiako txapeldunak triatloian

Delteco Eibar Triatloi Taldeak ezin izan du denboraldia hobeto hasi eta, asteburuan Reinosan jokatuko Espainiako Neguko Triatloi txapelketan, Pello Osorok elite 23 urtetik azpiko txapela jantzi zuen, gauza bera egin zuen Alejandro Altunak 50etik 54 urtera arteko mailan eta Edu Oiarzun azpitxapel-duna izan zen 45etik 49 urtera artekoentzat.



Osoro, Altuna eta Oiarzun podiumaren goi-goian izan dira.



Alex Sarasua gazteak Urbat-Urkotronikeko lehen taldearekin debutatu zuen asteburuan, eibartarrek Donostian 12-17 irabazi zuten partiduan. Urbatekoak Waterpolo Donostia-koak baino gehiago izan ziren, markagailuan atzean lagatzea nahiko kostatu bazitzaien

Sarasuaren debuta waterpolo senior taldearekin

ere; dena dela, Urbatekoen kontraerasoek erabaki zuten neurketa. 1998an jaiotako debutariak gol bat sartu zuen. Waterpolo eskolako gazteenek, bestalde, garaipena garaipenaren ondotik, 32-5 irabazi zieten Lautadakoei Orbean jokatutako neurketan.

Deporreko mendizaleen irteera

Aurreko zapatuan Lesakatik Arantzainoko ibilbidea egin zuten Klub Deportiboko mendi baztordekoek antolatutako txangoan parte hartu zutenek. 17 bat kilometroko ibilbidean Unanuko mendi-punta (651 metro) gainditu zuen bidean 40 laguneko taldeak, bost ordu eta erdiko iraupena izan zuen mendi martxan. Bestalde, Deporrekoek Euskal Herriko zeharkaldia dihardute egiten -"etapa bakoitzean 55 bat lagun ibili gara, autobus bat beteta"- . Gaur hasten dugun hilabetean hiru irteera egingo dituzte Deporrekoak: bihar, Atondotik Berrioplanora, Eltxumendi gaindituz; hilaren 16an, haur eta gurasoentzako irteera Kurutzeberrira; eta 23an, Gaintzatik Amezketara, sagardotegia tartean izango dela.



berriak

XAKEA

Denboraldi hasiera ona izan dute Klub Deportiboko xake talde biak Gipuzkoako ligan. Preferente mailan diharduen lehen taldeak 3'5-0'5 irabazi zion Fortunari, 1-3 Anaitasuna-Kakuteri eta, azken jardunaldian, bina berdindu zuen Hondarribi haundiarekin. 3. mailan diharduen bigarren taldeak, bestalde, Santikutz-Legazpirekin 1'5-2'5 galdu eta gero, garaipen errazak izan ditu (4-0 bietan) Tolosabarra B-ri eta, azken jardunaldian, Beasaingo Alfil B-ri.

FOBALLA

Tudelanori Ipuruan 4-0 irabazi eta gero, Garitanok zuzentzen duen Eibarrek Izarrari egingo dio bisita domekan, arratsaldeko 17.00etatik aurrera Merkatondoan jokatuko den partiduan. Eibartarrak Alaves liderrarengandik lau puntura daude eta ez zaie komeni haren arrastoa galtzea.

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
 euskaratik gaztelerara,
 gazteleratik euskarara,
 eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
 elkarte@etakitto.com

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
 Txalixa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
 ☎ 943 201095 FAX: 943 202564



Asola-Berrikoek bikain agurtu zuten urteurrena

50 urte betetzen zutela-eta, 2012an prestatutako egutegia aurrrera eramateaz gain, aurreko zapatuan programa horretako azken ekitaldiarekin biribildu zituzten ospakizunak hiru-txirlo taldeko kideek. Egitarau horretan lagundu ziren erakunde eta talde guztiei zuzendutako bazkari ederra egin zuten zapatuan Asola-Berrin bertan eta tartean izan ziren instituzio, hiru-txirloko federazio eta bestelako laguntzaileen ordezkariak, anai-tasun giroan. Eskerrik asko gu ere gonbidatzeagatik.



Debarrena maila igotzeko aukera prestatzen

Azken jardunaldian Colo-Colo irabazita, Debarrena eskualdeko areto-foballeko Concepto Egile lehen taldeak mailaz igotzeko duen aukerak aztertzen hasi dira klubeko agintariak eta, horretarako, neurriak hartzen. Jose Ramon Iriarte koordinatzaileak martitzenean egindako aurkezpenean berriro adierazi zuen "Euskadiko lehen taldea izateko helburuari eusten" diotela. Asmo horre-

kin lotu dute Elgoibarko, Eibarko eta Ermuko jendearekin egiten diharduten lana. 2. mailara igotzeko bide horretan, Egilek sei puntu kentzen dizkio bigarrenari eta ez du partidurik galdu.

MAQCenter garaile

Eibarko taldeak, bestalde, 5-2 irabazi zion Ipurua kiroldegian Eskoriatzari. Jubenil mailako zortzi jokalarri sartu ziren deialdian.

Iker Martinez judoka gero eta hobeto

Itxaropen handia dute Kalamua klubean infantil mailako judokarekin eta, horrela, Gipuzkoako txapelketako finalerako sailkatzeko jardunaldian, eibartarra onena izan zen 60 kilotik beherakoenen artean, iazko 2. postua hobetuz.

Aurretik, Lezoko kiroldegian bertan, junior mailako Gipuzkoako txapelak izan ziren jokotan eta Nekane Muguruzak (zilarrrezko domina), Adrian Riañok eta Eneko Loresek (brontzezko bana) Euskadikoan parte hartzeko txartela eskuratu zuten.



Bestalde, zapatu goizean Legazpiko Bikuña kiroldegian jiu-jitsu entrenamendua egin zen, estatuko txapelketetan jardungo duten borrokalariak aukeratzeko (argazkian Kalamuako aukeratutakoak).

Martinez, belauniko, eskumatik hasita lehena.

Gimnastek eskolarteko txapelketari ekingo diote bihar

Maiatzera bitarteko txapelketa izango da bihar Bergaran hasiko den Gipuzkoako eskolarteko gimnasia eritmikakoa. Ipuruak guztira 31 gimnasta aurkeztuko ditu, hainbat mailatan banatuta. Biharko jardunaldian sei izango dira Eibarko kluba

ordezkatu dutenak: Ane San Martin, Olaia Golzarri, Nahia Bilbao eta Graxi Arregi jubencil mailan, eta Nerea Deza eta Lorea Armendariz kadeteetan. Laukoteak iazkoari eutsi nahiko dio (Euskadiko txapelkunak dira amateur mailan).



Pilota gaur Astelengan

19.15etan hasiko da gaurko jaialdia eta, Udaberri torneoaren barruan, Narbaiza-Ruiz Lezoko bikotearen aurka jokatu du. Jarraian, Euskadiko ligaren neurketan, Unamunzaga-Bengoetxea bikoteak Usurbilgo ordezkariari egingo diete aurre. Domeka goizean partiduak Ipurua kiroldegian izango dira, 11.15etan hasita.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAIÁ, gure etxeko erregiñari!, haraiñegun zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Milla patxo aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, IZAR, atzo bederatzi urte egin zenduaz-en-eta. Jarraitu beti bezaiñ alai. Aitta, ama eta Olatz-en partez.



Zorionak, JULEN, txapelduna, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat zure famelixaren partez.



Zorionak, URKO, haraiñegun urte bi bete zenduaz-elako. Etxekuen eta, batez be, Sara zure arrebaren partez.



Zorionak, GARI, lau urte egingo dozuz-eta martitzenian. Zelako mutil haundixa eginda zagozen. Laztan potolo bat.



Zorionak, EKAIN, hillaen 6xan sei urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, etxeko printzesaren partez.



Dagoeneko "Momo" k bi urte egin dittu. Zorionak, ALEX, aitaxo, amatxo eta Liberen partez.



Zorionak, JUNE, zure bosgarren urtebetetzian. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IKER, domekan zortzi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PERU (30ian) eta IZARO (28xan), zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, IKER (lau urte) eta IRAIA (urtebete) Blanco Calderón, zuen urtebetetzian. Muxu bat etxekuen partez, gure etxeko printze eta printzesarentzat. Aitxitxa eta amama.

hildakoak

- Antonio Adolfo Vicente Roman. 83 urte. 2013-I-24.
- Victoria Larrañaga Larrañaga. 96 urte. 2013-I-24.
- Angel Lacarra Burdaspar. 70 urte. 2013-I-25.
- Carmen Urberuaga Urionaguena. 76 urte. 2013-I-25.
- M^a Pilar Sarasua Arrieta. 69 urte. 2013-I-26.
- Felisa Murua Abaunza. 89 urte. 2013-I-27.
- Magdalena Solagaistua Galdos. 95 urte. 2013-I-28.
- Isidora Osoro Agirregomezkorta. 96 urte. 2013-I-28.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

1ean: 22.30
2an: 17.00, 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"Lola versus"

Zuzendaria: Daryl Wein



(2 ARETOAN)

1ean: 22.30
2an: 17.00, 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"El cuerpo"

Zuzendaria: Oriol P. Rosello



(ANTZOKIAN)

1ean: 22.30
2an: 19.45, 22.30
3an: 20.00
4an: 20.30

"El último desafío"

Zuzendaria: Kim Jee-Woon



(ANTZOKIAN)

2an: 17.00
3an: 17.00

"El corazón del roble"

Zuzendaria: Angel Izquierdo



BARIXAKUA 1

INDIANOKUA

16.30. Aratosteetako apainketa eta asanblada. Indianokua gaztelekuan.

MUSIKA JAIALDIA

20.30. Musika Latindarren II. Jaialdia, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen eta beste hainbaten eskutik, Ana Caballerok zuzenduta. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

00.00. Todo o Nada (Madril) eta Drommedolker (Norvegia) bakarlariren kontzertua. Karrikan.

ZAPATUA 2

TAILERRA

10.00. Maskara tailerra (umeentzat). 5 euro (3 euro izena alde aurretik emanda), hamaiketako barne. Itzamna akademian (Bittor Sarasketa, 2).

BAZKARIA

13.30. San Juan Bosco ospatzeko bazkaria. Eskarne jatetxean.

MUSIKALA

16.00 eta 19.30. "Peter Pan ikuskizuna. Espaloia kafe antzokian (Elgetan).

INDIANOKUA

17.00. Aratosteetako apainketa eta asanblada. Indianokua gaztelekuan.

ZINEA

17.30. "Wall-e" filmaren emanaldia. El Corte Inglés.

DOMEKA 3

INDIANOKUA

17.00. San Blas opilak egin. Indianokua gaztelekuan.

ASTELEHENA 4

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Toki.

16.00. Sendabelarren Foroa: "Mihiluaren erabilera eta propietateak". Portalean.

SANTA AGEDA BATZEN

19.00. Santa Ageda batzen, Sostoa abesbatzaren kalejira.

MARTITZENA 5

IKASTEN

10.00. "La nueva lingüística" hitzaldia, Dináh Torrejeanoren eskutik. Armeria Eskolan.

IDAZLEAREKIN BERBETAN

19.00. Idazlearekin Berbetan: Joseba Lozano, "Argiaren Erreinua" lanaren inguruan. Juan San Martin Liburutegian.

EGUAZTENA 6

IKASTEN

10.07. Mendi-ibilaldia: Orio-Zarautz. Oriora joateko trenaren irteera Ardantzatik (10.13etan Estaziñotik).

EGUENA 7

IKASTEN

10.00. "La nueva lingüística" hitzaldia, Dináh Torrejeanoren eskutik. Armeria Eskolan.

ARATOSTEAK

15.30. Ikastetxeetako taldeen kalejirak.

17.00. Urkizun hasita eta Untzagaraino, Jainaga eta Narbaizarekin kalejira. Lisker taldearekin dantzaldia eta maskara, makilaje eta osagarri tailerrak, Astixaren eskutik. Untzagan.

IKASTEN

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

ODOLA-ATERATZEA

18.30. Odola-ateratzea, Gipuzkoako Odol Emileen eskutik. Anbulategian (Toribio Etxebarria kalean).

lehiaketak

✓ Otsailaren 7aren 19.00ak baino lehen

ARATOSTEETAN DOTOREEN JARRITAKO TABERNA.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Pegoran edo 010 zkian.

✓ Otsailaren 16ra arte

INDUSTRIA-ARGAZKILARITZA DIGITAL LEHIAKETA.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen (Isasi, 36).

✓ Otsailaren 17ra arte

EUSKERAZKO BERBARIK ITSUSIENA AUKERATZEKO.

Lanak aurkeztea eta informazioa: AEK-n (eibar@aek.org) eta Euskal Euskaltegian (euskaltegiaeibar@telefonica.net).

✓ Otsailaren 28ra arte

MARTXOAK 8-KO EMAKUME LANGILEAREN EGUNAren lan artistikoen lehiaketa.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan.

✓ Martxoaren 12ra arte

XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).

SAN BLASAK bedeinkatzeko

– Karmengo Amaren elizan, **meza guztietan**

– Amañan: **11.00**etan

– San Pio X.a eta San Andres: **12.00**etan

– San Agustin: **13.00**ean

HOROSKOPOA

ARIES

Eztanda egingo duzu azkenean! Hobe duzu pertsona horri sentitzen duzuna esatea, ez baita ona gauzak gordetzea.

TAURUS

Datorren astean konturatuko zara nola zure berbek askotan laguntzeko balio duten. Lagun horrek ez du ahaztuko.

GEMINI

Jatorra zarenean zoragarria zara, baina egun aldrebesa daukazunean... Hobe zuregan inor ez hurbiltzea! Ez da hola?

CANCER

Astea ondo hasi eta hobeto amaituko duzu. Azken aldian bizi duzun momentu ona luzatu egingo da: aprobetxatu!

LEO

Momentu txarrenei alde onena ikusten saiatuko zara datozen egunotan, baina askotan zaila egiten da. Hala ere, ez etsi!

VIRGO

Ez duzu etxetik irteteko gogorik izango. Makal sentituko zara eta bakarrik egoteko gozoz. Zure nahia lortuko duzu.

LIBRA

Ez daukazu zertan kezkatu, ez zintuen inork ikusi. Hala ere, hurrengoan argiago ibili; bestela, harrapatu egingo zaituzte.

SCORPIUS

Umetako oroitzapenak etorriko zaizkizu burura asteburuan. Une ederrak bizi izan zenituen; ederragoak biziko dituzu.

SAGITTARIUS

Astelehenak astelehen dira, baina bestela aste osoan izango duzu irribarrea ahoan. Astelehenean halamoduz konpondu!

CAPRICORNIUS

Egingo ez duzun gauza batengatik errua egotziko dizute eta denak kontra izango dituzu. Defentsa ona prestatu beharko!

AQUARIUS

Gustora ibiliko zara udazken eta negu honetan zerutik jausi den ur guztiarekin, ezta? Eta uda guzti lehorra bada, zer?

PISCIS

Juegarako gogoia izango duzu, baina hobe norbaitekin egin, bakarrik irtetea ez baita dibertigarria. Hasi konbentzitzen.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

telefono jakingarriak

- SOS deiak 112
- Pegora 010
- Udaletxea 943 70 84 00
- Portalea 943 70 84 39
- Udaltzaingoa 943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa 943 82 01 10
- KIUB 943 20 38 43
- Epaltogia 943 03 34 00
- Iberdrola 901 20 20 20
- Naturgas 902 12 34 56
- DYA Larrialdiak .. 943 46 46 22
- Gurutze Gorria... 943 22 22 22
- Mendaro osp..... 943 03 28 00
- Anbulategia 943 03 25 00
- Torrekua 943 03 26 50
- Errepideak..... 902 11 20 88
- Ertzaintza 943 53 17 00
- Eusko Tren 902 54 32 10
- Pesa 902 10 12 10
- Taxiak 943 20 30 71
- 943 20 13 25
- Alkohol. Anon. 629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen .. 650 26 59 63

erakusketak

✓ **Otsailaren 24ra arte**


“BIDE ZABALAK” hamar artisten erakusketa. Portalean.



✓ **Otsailaren 28ra arte**

JOSE LUIS MARTINEZ. “Portugal”. Argazkiak. Portalea tabernan.

ISIDRE HUMET. “Insectos”. Argazkiak. El Ambigú tabernan.



farmaziak

✓ **barixakua 1**

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

✓ **zapatua 2**

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

✓ **domeka 3**

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

✓ **astelehena 4**

EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)

✓ **martitzena 5**

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

✓ **eguztina 6**

EGUNEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)

✓ **eguen 7**

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

✓ **barixakua 8**

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.50.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaieko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

				9			7
		9		6	1		2
	5			3			
5	4					3	8
	7					1	
2	9					7	4
			1				4
3			2	9		5	
1			5				

SUDOKUA

3	6	5	1	9	7	2	8	4
8	2	1	3	4	5	6	9	7
9	7	4	6	2	8	1	5	3
6	5	7	2	8	1	4	3	9
2	1	3	4	7	9	5	6	8
4	8	9	5	3	6	7	2	1
7	9	6	8	1	2	3	4	5
1	3	2	9	5	4	8	7	6
5	4	8	7	6	3	9	1	2

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes ofizialeko pisua salgai Amanñan. 70 m². Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Logela bakarrekoa ahal bada. Tel. 646-662911.
– Esteponan (Málaga) pisua alokagai, martxotik ekainera. Kaiaren eta hondartzaren alboan. Eguzkitsua. Tel. 645-728317 eta 943-201294.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Presazkoa. Tel. 686-420642.
– Senar-emazteek pisua hartu nahi dute Eibarren errentan. Tel. 686-739143.
– Egongela bilatzen dut errentan. Tel. 615-303314.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Seat 600 salgai. Egoera ezinhobean barrutik zein kanpotik. Beti garajean gordeta. 4.000 euro negoziagarriak. leirehs@hotmail.com

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai Eibar erdialdean. Egoera onean. Tel. 671-258740.

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Otaola Etorbidean (1. solairua). 25 m². Komun berria. Baita koadrilentzat ere. Tel. 681-303507.
– Garajea alokagai Karmen kalean. Itxita. 18 m². Gauzak gordetzeko tokiarekin. Tel. 630-690317.
– Garaje itxia edo marraduna, trasteroarekin, hartuko nuke alokairuan. Errekatu, Sansaburu edo Bista Eder inguruan. Tel. 636-322725.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Geriatria ikastaroa eginda. Esperientzia. Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 686-052084.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-420642.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta nagusiei laguntzeko. 15.30etatik 21.00ak arte. Tel. 671-478823.
– Neska eskaintzen da administrari jarduteko, saltzaile moduan eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-225189.
– Neska euskalduna eskaintzen da kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 636-259800.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.
– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 13.00etatik 17.00ak arte. Tel. 618-875007.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 629-872270.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 664-009684.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-247429.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta saltzaile jarduteko. Tel. 688-691544.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, soziedadek garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 633-843512.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadek garbitzeko. Baita gauzez eta asteburuetan. Tel. 689-436454.– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-341238.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko. Tel. 669-930282.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 622-162798.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita erresidentzian ere. Geriatria-laguntzaile tituluarekin. Tel. 632-770872.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita erresidentzian ere. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 686-739143.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Informaek. Tel. 681-041297.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 698-367223.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 688-884287.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta lantegietan jarduteko. Geriatria-laguntzaile tituluarekin. Tel. 608-401590.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-366850.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 654-349366.
– Neska eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 633-843512.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-041099.
– Erizaina eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-733490.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskoletako lanak egiteko. Tel. 678-925568.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-078715.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.

– Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketetarako prestaketa, profilak, HABE, EGA. Tel. 620-608065.
– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrik ematen ditu LH eta DBH mailakoentzat. Tel. 651-503971.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketetarako prestaketa, profilak, HABE, EGA. Tel. 620-608065.
– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrik ematen ditu LH eta DBH mailakoentzat. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Mutikoarentzako bizikleta salgai (3tik 8 urtera). Berria. Urdina. Tel. 617-256466.
– Lehen jaunartzerako marinel trajea salgai. 14 tallakoa, krema kolorekoa. Prezio onean. Tel. 630-686469.



AURREMATRIKULA ZABALIK 2013-2014 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com

La Salle Eibar

*Urtarrilaren 28tik
otsailaren 8ra
(biak barne)*

**HAUR ETA LEHEN
HEZKUNTZA**
(D eredua)
DBH
(D eredua)

**La Salle Isasi eta Azitain
Ikastetxeetan**



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu

*...eta kitto! aldizkarian
duzu aukera (943 20 67 76)*

Aurrematrikulak Urtarrilaren 28tik Otsailaren 8ra

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARIA 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

+ kalitatea + balioetan oinarritutako hezkuntza
+ plurala eta integratzailea + gertukoa

eskola honetan batu egiten dugu

**2013
2014
IKASTURTEA**

euskal eskola publikoa
pertsonek aldeko apustua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78